

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Irailaren 27ko 405/2019, ebazpenaren laburpena, beste herrialde batzuetako umeak aldi batean hartzeko dirulaguntzen deialdia

BDNS (identifikatzailea): 475050

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradunak izango dira, gutxienez, urte bete, Barrundian erroldatutako pertsona guztiak, baldin eta beste herrialde batzuetako umeak aldi baterako hartzen badituzte, haien gizarte, osasun egoera, eta bizi kalitatea hobetze aldera.

Bigarrena. Diru-laguntza ematearen xedea

Aldingabeak aldibaterako hartzeagatik dagozkien gastuak zati batean finantzatzea.

Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak

Udalbatzak, 2019ko apirilaren 30ean egindako batzarrean, beste herrialde batzuetako umeak aldi batean hartzeko dirulaguntzak araupetuko dituzten oinarriak onartu zituen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.barrundia.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kopuru osoa: 500,00 euro.

Aurrekontu partida: 230.481.013.

Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea

Dokumentazioa aurkezteko epea 2019ko urriaren 31ra arte izango da.

Ozaetan, 2019ko irailaren 27an

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA